

Ingurumenarekiko Konpromisoa

Durangoko Udal Euskaltegitik gure herrialdearen ingurumen iraunkortasunaren alde egiten dugu lan.


Azken urteotan euskaltegiak bilakaera positiboa izan duenez, ikasleek, jasotako zerbitzuarekin satisfazio maila altua erakutsi dute. Gure ustez, garapen ekonomikoa eta ingurumena zaintzea bateragarri egin behar ditugu, gure ikasleek etorkizunean ere satisfazio maila altua izan dezaten eta ingurumena babesteko dugun erantzukizuna bete dezagun. Hori dela eta, **poluzioa prebenitzeko** eta erakundearen eguneroko kudeaketan ingurumena sartzeko konpromisoa hartu dugu; hortaz, ingurumenarekiko jokaera hobetuko dugu egunez egun.

Giza jarduera guztiek bezala, Durangoko Udal Euskaltegiak ingurumenean eragina du, eta, horregatik, konpromisoa hartu dugu gure **ingurumen-alderdi nagusiak** identifikatzeko eta ebaluatzeko eta gure jarduerarekin eta haien funtzioekin lotutako alderdiei buruz **langileak trebatzeko**, sentsibiliza daitezzen eta haien lanpostuko portaerak gure konpromisoa islatu dezan.

Ingurumena etengabe hobetzea da, **ingurumen-legeria** betetzeaz gain, gure erronketako bat, eta, horretarako, **alderdi nagusiak murrizteko ingurumen-helburuak, -xedeak eta -programak** zehaztuko eta berrikusiko ditugu.

Prozesu hau, **EKOSCAN** araberako Ingurumen Kudeaketa Sistema baten eremuan garatzen da.

Ingurumen Portaera Adierazleak



Informazio gehiago nahi izanez gero, sistemaren kudeatzailea hau da

Jesus Sarriugarte. Tf: 946030040
euskaltegia@durangoeuskaltegia.net

2017 URTEA

Hobekuntza Plana



Energia kontsumoa murriztu

- Sarrerako ate automatikoaren eraginaren jarraipena egin
- Beheko gelako (Berbagunea) energia kontsumoaren kontrola egin



Erosketa berdea

- Irizpide berdea duen bulegoko materiala erosi
- Ekoetiketa duten 1 edo 2 garbiketako produktu erabili



Hondakinen sorrera murriztu

- "Langileen plataforma" ataria erabili
- Ikasle eta irakasleen artean azoka txikia antolatu berrerabili daitezkeen produktuekin



Ikasle eta irakasleen sentsibilizazioa bultzatu

- Beheko sarrerako txokoan bizikletentzako aparkalekua jarri

Zaratak duen eragina aztertu

Hobekuntza Emaitzak



ENERGIA KONTSUMOA

2016an sarrerako ate automatikoa jarri zen eta honek euskaltegia beroago mantentzea ekarri du eta honek energia kontsumoaren murrizketan eragina izan du, erabiltzaileko %8,26an jaitsi delarik.



EROSKETA BERDEA

2017an paper birziklatuaz gain ez da ingurumen irizpideak betetzen dituen bulegoko material gehiagorik erosi.



HONDAKINAK

Euskaltegiko erabiltzaileko egiten den paper kontsumoak % 31,22an egin du behera azken urtean. Aipatzekoa da udalak "Langileen plataforma" deritzon plataforma martxan jarri duela eta online bidezko tramiteak egitea ahabidetuz.

Bestalde, berrerabilpena sustatzeko bigarren eskuko azoka antolatu da, 2017an aurreko urtean baino 159 € gehiago lortu direlarik. Bertan lortutako dirua JAES elkartera bideratu da, premian dagoen jendeari laguntzeko



SENTSIBILIZAZIOA

Sentsibilizazioa 2 arlotan landu da:

- * Beheko sarreraren bizikleten aparkalekua jarri da, ikasle eta irakasleei euskaltegira bizikletan bertaratzeko erraztasunak emanez.
- * Ikasleei zuzendutako zarataren neurketa, eragina eta aurre egiteko tresnen inguruko jardunaldiak antolatu dira.

